



2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO A: ERGOIEN

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2021-10-05	19:06	20:50

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Agustin Lekuona, Josu Delgado eta Haizea Saez de Eguilaz			
Herritarrak:	Euskaraz: 8		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 3		Gizonezkoak: 5	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 3	51-65 urte: 2	>66 urte: 3

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Aurkezpena egin da. Zinegotzien aurkezpena eta saioak izango dituen atalak aurkeztu dira.
2021 urtea	2021ko egoera azaldu da. <ul style="list-style-type: none">- 2020ak oso markatuta joan den urtea izan da (ezjakintasuna, aldaketa asko...).- Oinarrizko mantenuak lehentasuna izan dute. Hori azaldu da eta ongi ikusi da.- Landetxeko zerbitzu anitzeko eraikinak elizan sortutako pitzaduren inguruan galdetu da: ea gastu handia izan duen. Oraindik ez da kalkulatu zenbatekoa izan den gainkostua. Albiste ona da azken 5-6 hilabeteetan ez dela mugitu eta beraz, bukatutzat eman da prozesua. Orain baloratuko da zenbateko kostua izango duen eta berez enpresari dagokio ordaintzea baina ikusiko da zer gertatzen den.- Poligonoen biziberritzearen gaiaren inguruan galdetu da, batez ere Ugaldetxoko poligonoagatik. Aipatu da poligono guztien egoeraren

	<p>azterketa egin duela Udalak eta finantzaketa lortu ahala egiten joango garela.</p>
<p>2022eko aurreikuspena</p>	<p>2022eko aurrekontuak azaldu dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzuetan zenbat diru joaten den aipatu da. Ez da posible gastuen ia herena enpresa azpikontratatueta joatea. Diru publikoaren pribatizazioaz hitz egin da. Ea lanpostu publikoak sortzen diren, ea jendea horretara animatzen den.
<p>Auzoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Zer egin den azaldu da (Taxibus parada, Arbelaitz bidea) - Zer egiteko asmoa dagoen azaldu da, ez dago Udalean proiektu handirik Ergoienerako. - “Soinuenea txokoa” proiektua azaldu da. Horren finantziarioaren inguruan oraindik ez da ezer zehaztu. - Internet: fibra badago herri gunean baina baserriekin zer? Aipatu da Oiartzunen auzo eta baserrigune askotan ez dagoela zuntza. Telekomunikazioaren gaien proiektu ezberdinak daude eta baserri proiektua bezala ezaguna dena, Foru Aldundiarena, eremu txuri batzuetan oinarritzen da, non eremu horietan sartuta dauden baserrietara Aldundiak zuntza eramateko proiektua duen. Baina ez daukagu zehaztasunik honen inguruan ere. - Taxibusaren ordutegi luzapenaren inguruan hitz egin da. Larunbatetan deitu egin behar dela aipatu da. - Errepidea oso gaizki dagoela aipatu da. Diputazioarena den arren, zerbait egin daitekeela aipatu da. - Tolare inguruan dagoen egoera ez da ona, “autopista” bat dirudi, “eman bidea” horiek ez dira errespetatzen, gainera alde batekoak ez du bestea ikusten. “Bado” batzuk jartzea da irtenbidea? - Arpide bidean egoera bera dago. Mugikortasun plana ongi irizten dute eta horrelako zerbait eskatzen dute. Ispilua jarriko dela aipatu da. Udaletik zentzu bakarrekoa jartzea proposatu da. Ez da posible 70eko abiadura muga jartzea, gutxiago behar luke.

	<ul style="list-style-type: none"> - Pagoara doazen kamioiak, furgonetak... Kotxe asko ibiltzen da eta oso arriskutsua da. - Kooperatibako irteera, bidegorriko bidegurutzea Fortaleza aurrean... zerbait pasako da noizbait. - Diputazioari presioa sartzeko eskatu da, Udaletik zerbait egin behar dugu bide honekin. Auzotarrak jo dute Diputaziora eta erantzuna ezezkoa izan da. - "Radar pedagógico" irtenbidea da? Galdetuko da. - Pasai Donibanen bezalako semaforoa? Denborarekin agian? - Abiadura kontrolatzeko radarrak jartzea aztertuko du Udalak. - Altzibarko parkin berriaren inguruan galdetu da. Erosi egin da edo alkilatu? Bitatik du. - Tolare aurrreko parkinean Altzibarko berdina egiteko eskatu da. Alkilatu, asfaltatu eta margotu. Aztertuko da. - Lanbarreko lanen galdera egin dute. - Abiaduraren gaia berriz atera da. Beste toki batzuetako adibideak aipatu dira: Rafael Pikabea, Mamut ondoko semaforoa, Mendineko semaforoa... Udalak Foru Aldundian eragin beharra. - Iturriotzen egingo diren etxebizitzien galdera egin dute.
--	---

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,14
bilera ongi gidatu da	7,71
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	7,83
Auzotar kopurua	5,29
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7
Saioa probetxugarria izan al da?	7,86
Egunaren egokitasuna	7
Orduaren egokitasuna	7,71
Lekuaren egokitasuna	7,57